

Intza eta Tomas, sorginaren sekretua

**Ustiapen orokorra
Zuzenketa**

1. kapituluaren ustiapena

Sorginei buruzko ikuskizun bat ezeztatzekotan...


--> Nor da narratzailea? **INTZA**

--> Zuzen ala oker?

- Sorginei buruzko ikuskizun bat izanen da herrian.
- Agertokiko leku irudikapenak desagertu dira.
- Intzari sorgin istorioak laket zaizkio.
- Giro bitxia dago herrian.

Z	O
☒	☐
☐	☒
☐	☒
☒	☐

--> Hitzak binaka lot itzazu:



--> Etiketak binaka lot itzazu:

Orain	jantzien parte bat desagertu zen.
Duela 400 urte	sorginak aipatzen dituen emanaldia izanen da.
Zortzi egunen buruan	ikasgelan sartzeko tenorea da.
Atzo	sorgin ihizi handia gertatu zen Euskal Herrian.

--> Intzak aipatzen duen sorgin ihizia 1609an gertatu zen (ikus 3. orrialdea). Zer mende zen hori?
17. mendea

--> Zer dakigu ikuskizunaz? Ingura ezazu.


Pertsonaia nagusia jujea da. Kapelu puntazorrotzak ukanen dituzte aktore guziek. Halloween bestari buruz da. Sorginei buruz da.

--> Zure ustez, Intzak eta Tomasek zergatik jasaten dituzte trufak?

Intza eta Tomasen arteko adiskidetasunarengatik. Pentsatzen dute maiteminduak direla.

.....
.....

--> Asma ezazu atsoek zer erraten ahalko zuten.



- > Azpiko erranaldien artean, kapitulua hobekienik laburtzen duena hauta ezazu eta idatz.
- Intzaren aita du jujea antzeztzen eta hilabeteak eman ditu bere testuaren ikasten.
 - Sorginei buruzko ikuskizuna prestatzen dute herrian baina antzerkiko jantziak desagertuak dira.
 - Merkatuan, halloween ospatzen dute.

Sorginei buruzko ikuskizuna prestatzen dute herrian baina antzerkiko jantziak desagertuak dira.

Laguntza: sorgin ihizi handia = sorgin gisa ikusiak ziren pertsonen salaketa, atxiloketa, tortura, jujamendua eta batzuetan heriotza

2. kapituluaren ustiapena

Ohar batengatik kexatzen...

--> Nor da narratzailea? **Tomas**



--> Zuzen ala oker:

- Intza aitatxi-amatxien etxean bizi da, aitarekin.
- Marmutx gatua ihiztari ona da.
- Etxexuri kinkail saltegia pixka bat beldurgarria da.
- Azkenean, sagu arterik ez dute erosi.

Z	O
☐	☒
☐	☒
☒	☐
☒	☐

--> Hitzak leku egokian idatz itzazu:

sagu artea – ezpalak – apoa - kinkail saltegia - gauenara

				
kinkail saltegia	ezpalak	sagu artea	gauenara	apoa

--> “Nolako arbola, halako ezpala” erran zaharrak/atsotitzak zer erran nahi du?

~~Arbola bat mozten delarik, beti badira ezpalak.~~

~~Ezpala ikusten dugularik, arbola nolakoa zen asma dezakegu.~~

Haurrak burasoak bezalakoak dira.

--> *Ahozkoaren prestatzeko.* Entsea zaitetz galdera horiei erantzutera eta zure iritzia konpara ezazu zure mahaikidearenekin.

- “Haren eite dun, ez huke hark bezala finitu behar...”: Etxexuri anderearen hitzak ez dira argi... Zure ustez gaiztoa ala goxoa da haren oharra? Zergatik?”
- “haren” erran duelarik, nor aipatu du?
- “Finitu” erran duelarik, zer adierazi nahi izan du?
- Nola erantzun dute Graxianak eta Intzak?
- Zergatik Tomas isil-isila egon da autoan?


--> Azpiko erranaldietarik kapitulua hobekienik laburtzen duena hauta ezazu eta idatz. (Denak zuzen dira baina hautatuko duzun erranaldiak ideia inportanteena aipatu behar du).

~~Saguak badira amatxiren sukaldean eta gatuak ihiztatzen ditu.~~

~~Etxexuri kinkail saltegia leku atsegina da eta sagu arteak atzematen dira han.~~

Tomas Kinkail saltegia joaten da Intzarekin eta haren amatxirekin; hango dendariak ohar ulertezin bat egiten dio Intzari.

--> Sorgin-etxe bat marraz ezazu.



--> Erranaldiak osa itzazu xuxen izan daitezen.

Hi haiza Elaiaren **alaba**? Haren eite **dun**, ez **huke** hark bezala finitu behar.

Hi**haiza**..... Peioren **semea**? Haren eite**duk**....., ez**huke**..... hark bezala finitu behar.

Zu**zarea**..... Elaiaren **alaba**? Haren eite**duzu**....., ez**zenuke**..... hark bezala finitu behar.

3. kapituluaren ustiapena

Sekretu minberak...

--> Nor da narratzailea? **INTZA**

--> Zuzen ala oker?


- Tomasen amak erran du ihiztariei buruzko sekretuak badirela herrian.
- Tomasen amaren ustez hobe da gauza minberen ez aipatzea.
- Aspaldiko kontuak dira sorginenak.
- Sorgintzat hartuak diren pertsonak beti gaiztoak dira.

Z	O
☐	☒
☐	☒
☐	☒
☐	☒

--> Tomasen amaren ustez, nor dira sorginak?

- ~~Emazte gaiztoak.~~
- Besteak ez bezalakoak diren pertsonak.
- ~~Edabe magikoak prestatzen dituztenak.~~
- Baztertuak direnak.
- Beldurra eragiten dutenak.
- ~~Beltzez jantziriko atsoak.~~

--> Tomasen amaren iritziz, jendeak elkarri min egiten diolarik, bi jarrera izan ditzake gero. Hitz bakoitza lot ezazu dagokion etiketari.



--> Testua osa ezazu azpiko hitzak erabiliz:

Intza Tomasen etxera joan da **bazkaltzera** . Tomasen amak erran die bere ustez, sorginen inguruko **sekretoak** badirela herrian eta mingarriak direla. Betidanik eta leku guzietan sorginak erraten zaie besteak **desberdinak** diren pertsonari. Intzak **maite** du Tomasen etxera joatea. **haurride** anitz ditu eta familia biziki **burrumbatsua** da.

haurride - burrunbatsua - sekretuak - maite - bazkaltzera - desberdinak

--> Zergatik Intza eta Tomas ez dira elkarren ondoan jartzen eskolan? Zer diozu hortaz?


.....

.....

.....

--> Marraz ezazu Intzak Tomasen familia osoarekin egin duen afaria.

--> Hitz gurutzatuak osa itzazu.



Etzanik	Xutik
1. desordena	2. norbaiti osasuna itzultzea
3. desegin	4. sentimendu txar
7. kezkatu	5. ozenki irriz
9. argitasun	6. begitarte ilun
10. akusatu	8. txiste
12. larruaren irekitzea edo hondatzea	11. indar
13. janari	14. berriz piztu
15. lotsarengatik aipatzen ez dena	
16. deus ez dakiena	

- berpiztu --> berriz piztea
- sendatu --> osasunaren berreskuratzea
- leporatu --> zerbait beste norbaiten falta dela erratea, akusatzea
- suntsitu --> desegitea, xehatzea
- arranguratu --> kezkatzea
- tabu --> beldurraren edo lotsarengatik aipatzen ez diren gauzak edo gaiak
- argibide --> argitasun, informazio
- zauri --> larruaren irekitzea edo hondatzea
- erresumin --> atsekabe, sentimendu txar
- mutur --> begitarte ilun
- ezjakin --> deus ez dakiena
- eginahal --> indar, entsegu
- hazkurri --> janari
- nahasmendu --> desordena
- karkailaka --> irriz azantza eginez, ozenki
- arraileria --> txiste

4. kapituluaren ustiapena

Jantzien gordelekua eta ikur misteriotsu bat...

--> Nor da narratzailea? **Tomas**

--> Zuzen ala oker:

- Mimi haurra da.
- Mimik gutuna gorde du.
- Auzo herriko gazteek ikuskizuna absolutuki ezeztarazi nahi zuten.
- Tomas ez zen nehoiz sartu eihera barnera.

Z	O
☐	☒
☒	☐
☐	☒
☒	☐

--> Nor da Sherlock Holmes? Zergatik Sherlock Holmes erraten ahal zaio Tomasi?

.....

--> Nola dakigu Mimi adimen urriko gizona dela?

.....

--> “batzuetan, ahanzten du haren semea naizela eta esklabotzat hartzen nau...”
Zure ustez, Tomasen ama gaiztoa ote da? Zergatik erran ote du hori Tomasek?

.....

--> Idaztea

Egunkari artikulua bat idatz ezazu, jantziei zer gertatu zaien kontatzeko.

Edo

Jantzien desagertpenaz idatz ezazu, Patxiren ikuspuntutik.

--> “Gatu horrek bazukeen beste buztanik” erranaldia, erran zahar batetik heldu da.

Zer erran nahi du?

- Ageri denaren giblean, beste zerbait gordea da.
- ~~Sorgin gatu batzuek bi buztan badituzte.~~
- ~~Sugandila bezalakoa da gatua, buztana galtzen duenlarik beste bat hazten zaio.~~

--> Ondoko erranaldietarik kapitulua laburtzen duen erranaldia hauta ezazu eta azpimarra.

- ~~Tomasek, Eneko eta Txominen gutuna atzeman du eta ulertu du jantziak non diren.~~
- ~~Mimik jantziak eta ikur misteriotsu bat erakutsi dizkio Tomasi.~~
- Tomasek Mimi ikusi du eihera zaharrean, jantzi desagertuak atzeman ditu eta ikur misteriotsu bat ikusi.

5. kapituluaren ustiapena

Sorginak ez ziren uste bezalakoak...

--> Nor da narratzailea? **Intza**

--> Zuzen ala oker:

- Auzo herriko gazteek ikuskizuna ezeztarazi nahi zuten.
- Intzak sorginez zuen iritzia aldatu du.
- Patxiren aitak antzeztu jujeak, emazteak errespetatzen zituen.
- Juje horrek emazteak torturatzen zituen.

Z	O
☐	☒
☒	☐
☐	☒
☒	☐

--> Ikuskizunean, Patxiren aitak juje bat antzezten du. Emazteez pentsatzen duena gorritz kolorezta ezazu:

Emazte guziak deabruarekin harremanetan dira.

Emazteak libre izan behar dira.



Emazte guziak gaiztoak dira.

Gizon batek zerbait gaizkia egiten baldin badu, emazte batengatik da.

Emazteek eta gizonak eskubide berak dituzte.

Eritasunak emazteen eraginez gertatzen dira.

--> Elkar ikusten dutelarik, jujeak eta emazte libreak gogoan zer duten idatz ezazu.



--> Sinonimoak elkarri lot:

Erasiatu	Mehatxu
Dixidu	Epidemia
Izurri	Zikin
Lizun	Mokokatu

--> Eskas diren hitzak idatz itzazu:

Tomasi esker, **jantziak** atzeman dituzte eta **ikuskizuna** egin ahal izan dute. Antzerkia ikusiz, Intza ohartu da sorginak ez direla **atso** gaiztoak, baizik eta emazte **libreak**. Patxiren aitak **juje** bihurria antzeztzen du ikuskizunean.

jantziak - juje - atso – libreak - ikuskizuna

Luzapenak: Ikus eranskinak, 39.-44. or.

6. kapituluaren ustiapena

Tiranta sekretuko altxor gordea...

--> Nor da narratzailea? **Tomas**

--> Zuzen ala oker?

- Manka Tomasen amaren familiatik heldu da.
- Elaia, Intzaren ama, 1977an sortu zen. (**14 urte 1987an**)
- Elaiak bere ahizpari idazten dio.
- Elaia eta haren aita pobreak ziren.

Z	O
☐	☒
☐	☒
☐	☒
☒	☐

--> Zer emozio sentitu zuen Intzak kaiera atzeman zuelarik? (lau emozio).



Pena, dolua, poza, boztarioa, maitasuna, kuriostasuna, jakin-mina, harridura, estonamendua, ikustatea, esker ona, hunkidura...

--> Hitzak definizio egokiei lot:

Mindulina:	aita-amen burasoak, aitatxi-amatxiak, birraitaitxi/birramatxiak...
Diktadura:	aita-amengandik edo arbasoengandik jasotzen den ondasuna.
Heinekoa:	aise negar egiten duena.
Primantza:	askatasunik gabeko sistema politikoa.
Arbasoak:	zerbaiten/norbaiten neurrikoa (izarikoa).

--> Hitz horiek leku egokietan idatz itzazu:

Aita hil zaio eta **primantza** baliatuz auto bat erosi du.

Hor bazen izigarriko ur eremu bat, itsaso baten **heinekoa**.

Haren **arbasoak** Ingalaterratik etorri ziren.

Oso **mindulina** naiz; negarrez hasten naiz edozein film tristeren aitzinean.

Txilen, **diktadura** garaian, soldaduek jende anitz hil zuten.

--> Segi ezazu Elaiaren egunkaria idazten.

Beharrez, zerrendako hiru hitz erabiltzen ahal dituzu:

piknika - beldur – irri egin – pottoko – tontakeria - aztal beharri – bizkar zaku – sai

1989ko irailaren 7a

Joan den igandean, Oilarandoi mendira joan ginen aita, Peio eta gazte taldearekin. Maider eta biak...

--> Hiru testu hauetarik, kapitulua hobekienik laburtzen duena hauta ezazu eta idatz:

~~- Intzaren amaren muble zaharra zizelkatua da: txori bat eta bi eguzki ageri zaizkio. Negar egiteko gogoa du hautsia dela ikustean. Baina azkenean tiranta sekretu bat badela ikusi du.~~

~~- Eihera zaharra Elaiaren gordelekua zen, eta han, Intzak eta Tomasek haren egunkari sekretua atzeman dute.~~

~~- Muble zahar batean, Intzaren amaren egunkaria atzeman dute. Hartan, Elaiak bere eguneroko bizia kontatzen du eta ardura «Ene arbasoen primantzaren heinekoa izan behar dut» idatzi du.~~

.....

.....

.....

.....

.....

7. kapituluaren ustiapena

Aspaldiko adiskide batekin iraganaren aipatzen...

--> Nor da narratzailea? **Intza**


--> Zuzen ala oker?

- Elaiak Espainiatik ihes egin zuen bere burasoekin. (**aitarekin**)
- Mainerrek eta Elaiak elkar ezagutu zutelarik, Elaiak ez zekien ongi frantsesez.
- Elaiak biziki lagun ona zen.
- Den-denek iritzi ona zuten Elaiak.

Z	O
☐	☒
☒	☐
☒	☐
☐	☒

--> Mainerrek Elaiaren deskribatzeko erabiltzen dituen adjektiboak ingura itzazu.
irrigarria - ~~jeloskorra~~ - zoragarria - (ikasle) ona - librea - ~~arrunta~~ - hezgaitza

--> Asma ezazu bi neskek elkarri zer erran zioten:



-->Idaztea

Asma ezazu Elaiaren eskolako liburuxkan zer idatzia izan zitekeen.

--> Laburpena. Eskas diren hitzak idatz itzazu:

Intza eta Tomas Elaiaren lagunik **hoberenarekin** mintzatu dira. Jakin dute gazte denboran Elaiak nolakoa zen. **Aitarekin** ihes egin zuen **Espainiatik**. **Anitzek** biziki maite zuten baina **batzuek** kritikatzeko zuten hezgaitza zela erranez.

Hezgaitza - batzuek - aitarekin - hoberenarekin - anitzek - Espainiatik

--> Marraz ezazu Intzaren aita, gazte denboran bere rock taldearekin kantatzen ari.

8. kapituluaren ustiapena

Kondaira zahar baten eta Intzaren amaren arteko loturak...

--> Nor da narratzailea? **Tomas**

--> Zuzen ala oker?

- Haurrak ere sorgintzat hartzen zituzten.
- Elaiaren kaieraren hastapenean, sorginen erranaldi magiko bat idatzia da.
- Salaketen erdiesteko, jendeak torturatzen zituzten.
- Jujea (De Lancre) Baionakoa zen.

Z	O
☒	☐
☒	☐
☒	☐
☐	☒

--> Ikerketak:

Nor zen Joana Arc-ekoa? Nola hil zen?

--> Zure ustez, zergatik zainetan zen Leire irakaslea?

.....

--> Zer da kondairaren eta Elaiaren arteko lotura?

.....

--> Segi idazten:

Zer pentze polita duen ene
auzoak! Badakit zer eginen
dudan..._____

Ene senarrak emazte
horri gehiegi so egiten
dio. Nik..._____

Gizon hori ez dut
jasaten. Jujeari erranen
diot _____



--> Laburpena. Testua ordena egokian jar ezazu (puntuazioari so egiozu):

Irakasleak sorgin ihizia
aipatu du. Garai hartan hobengabe anitz
kondenatu zituzten sorginak zirela
erranez. De Lancre jujeak emazte
libreak edo gaitasunak zituztenak
ez zituen onartzen. Salaketak egiten ziren
torturapean edo interes maltzurrengatik.

--> Luzapenak

Eranskinetan, ikus “Zugarramurdi” (43.-44. or.) eta “Berho guzien *gainetik*” (54.-56. or.).

9. kapituluaren ustiapena

Elaiaren dohainak argitzen...

--> Nor da narratzailea? **Intza**

--> Zuzen ala oker:

- Tomasi gustatzen zaio bilo labur eta ongi orraztatuen ukaitea.
- Eihera Mainerren osabarena da.
- Elaiak landareak ongi ezagutzen zituen.
- Mainerrek uste du bere gazte denboran mutikoak neskak baino libreagoak zirela.

Z	O
☐	☒
☒	☐
☒	☐
☒	☐

--> Zure ustez zergatik haserre ziren Mainerren burasoak Elaiaren kontra? Zergatik erraten zuten eragin txarra zuela eta haien alaba sorgintzen zuela?

.....


--> Bila ezazu “sorgindu” aditzaren definizioa hiztegian.

--> Hitz multzoak azpimarra itzazu:

- Urdinez Mainerrek egin nahi zuena.
- Gorriz, burasoek Mainerri eginarazi nahi ziotena.

Munduan zer gertatzen den jakitea – Okindegiaren segida hartzea – Bestaren egitea, anaiak bezala – Ile-apaintzaile izatea – Bere baitarik pentsatzea – Etxen egotea zintzo-zintzo – Idea originalik ez izatea – Lagun bihurrik ez izatea.

--> Asma ezazu Elaiaz zer erraten duten:



--> Laburpena: Izen egokiak idatziz osa ezazu (kasu deklinabide markari):

Mainerri esker, **Intzak** eta **Tomasek** jakin dute **Elaiak** bilkurak antolatzen zituela, eihera zaharrean, beste lau neskarekin. Elkarrekin, anitz mintzatzen ziren eta beren iritziak garatzen zituzten, librokori pentsatzen ikasten zuten. Hori ez zen **Mainerren** burasoen gustuko eta gaizki mintzatzen ziren **Elaiak**, neskak sorgintzen zituela erranez.

Elaiak - Intzak - Mainerri - Elaiak - Tomasek - Mainerren

10. kapituluaren ustiapena

Familiaren fama...

--> Nor da narratzailea? **Tomas**

--> Zuzen ala oker?

- Intzaren amona jats baten gainean ibiltzen zen.
- Intzaren aitona askatasunaren alde borrokatzeagatik hil zen.
- Elaia hezgaitza zela erraten zuten.
- Intzak dohain bereziak primantzaz ukan zituen arbasoengandik.


Z	O
☐	☒
☐	☒
☒	☐
☒	☐

--> Intzaren familian, emazteek fama berezia dute. Zer fama?

.....

--> Intzaren amona berriki hil da. Artikulu bat idatz ezazu horren kontatzeko.

--> Batak pentsatzen du Elaia sorgina dela eta besteak ezetz. Argudioak asma itzazue.



--> Laburpena: Testua ordenan ezar ezazu:

Intzak ulertu du zergatik
bere aita eta aitatxi-amatxi gaizki sentitzen diren
sorginak aipatu orduko.
Haren arbasoen artean
emazte argi eta dohatu anitz bazirelako,
batzuetan sorgintzat hartuak izan direlako eta,
ondorioz, bizi gogorrek eta menturaz laburrak ukan dituztelako.

11. kapituluaren ustiapena

Aitarekin mintzo

--> Nor da narratzailea? **Intza**

--> Zuzen ala oker?

- Intza zuhaitz batean gordetzen da batzuetan.
- Intza usu joaten da ostatura aitarekin.
- Intzaren aita biziki harro da bere alabaz.
- Elaiak sufritu du bere famarengatik.

Z	O
☒	☐
☐	☒
☒	☐
☒	☐

--> Intza eta aitaren arteko elkarrizketa berridatz zuen hitzekin eta antzez ezazue.

--> Gogoeten egiteko gustuko duzun toki bat marraz ezazu .

Kapituluko argitasun nagusiak hiru erranaldiz laburbil itzazu.

Luzapenak:

Txoria txori (edo ***Hegoak***) kantua. (Joxean Artze, Mikel Laboa)

12. kapituluaren ustiapena

Sekretu bat partekatzen...


--> Nor da narratzailea? **Tomas**

--> Zuzen ala oker?

- Intza eta Tomas haritz baten itzalean jartzen dira mintzatzeko.
- Elaia hil zelarik, herritar guziak triste ziren, eta haren familiakoak lagundu zituzten.
- Elaia auto istripu batean hil zen.
- Negu gorrian gertatu zen istripua.

Z	O
☐	☒
☐	☒
☒	☐
☒	☐

--> Jendeak berriki jakin du Elaia hil dela istripu batean. Asma ezazu haien solasaldia.



--> “Ainara bat, otsailean” Zergatik zehazten du hori Tomasek? Zergatik xehetasun inportantea da?

Neguan, ainarak Afrikara joaten direlako.

.....

--> Zer da sekretua?

.....

.....

--> Ahozkoan:

“Sorginak badirenik ez da sinetsi behar, ez direnik ez da erran behar.”

Ikasleak bi taldetan emanen dira. Aldizka, talde batek erranen du zergatik *Sorginak badirenik ez den sinetsi behar* eta beste taldeak erraten du zergatik *ez direnik ez den erran behar*.

--> Idaztea.

“Baina aitak eta aitaxi-amatxik hainbertze urtez atxiki duten sekretu bat bada.

Pentsaketa egon naiz eta deliberatu dut aipatuko nizula, ene lagun hoberena baitzara eta, zurekin partekatzen baldin badut, arinagoa izanen baita.”

Beste sekretu bat asma ezazu, beste bukaera bat.